



AERGIk larunbat honetan ospatuko du herritarrei irekitako urteroko topaketa.

Hitzordua Olaraingo auditorioan izango da datorren larunbatean, hilak 29, 16:20tik aurrera. Hitzaldiak, omenaldiak eta aitortzak topaketaren egitarauan.

Aurtengo leloa: “Botila huts bat gauza askotaz beteta dago...”

OMEren arabera, alkoholak 3 milioi pertsona baino gehiago hiltzen ditu urtero, gehienak gizonezkoak. Kalkulatzen da munduan 237 milioi gizonek eta 46 milioi emakumek dituztela alkohol-kontsumoagatik nahasteak, eta ohikoagoak direla erosteko ahalmen handiena duten herrialdeetan. Adikziorik ohikoena da Euskadin; izan ere, pertsonako 75 litro alkohol hartzen ditugu urtean, Estatuko batez bestekoaren antzekoa, eta Europakoa baino txikiagoa, non biztanle bakoitzak, batez beste, 95 litro alkohol edaten dituen urtean. Osasun Ministerioaren azken txostenak, Estudes inkestan oinarrituta egin dena, Estatuan oro har behera egin duela erakusten du, baina ez Euskadin. Estatuan bere serie historikoaren daturik baxuenak lortu diren bitartean (1996tik), Euskadin ezberdina da. 14 eta 18 urte bitarteko euskal gazteak dira alkohol-dun edariak probatzen lehenak, gehien mozkortzen direnak eta kalamu gehien erretzen dutenak. Josean Fernandez AERGIko presidentearen hitzetan, “adikzioa duen personaren profila polikonsumista dela nabaritzen dugu. Alkohola gehien agertzen den adikzioa izan arren, ikusi dugu horrekin batera beste substantzia batzuekin ere katigatzen direla persona hauek, hala nola kalamuarekin, kokainarekin eta abarrekin. Ikusten dugu adinekoak alkoholaren kontsumoa moderatzen ari diren bitartean, gazteak neurrigabe ari direla kontsumitzen”.

Botila huts bat gauza askotaz beteta dago...

Aurtengo leloa “Botila huts bat gauza askotaz beteta dago...” da. Alkoholik gabe egon arren, sinbolikoki, beteta egon daitekeela adierazten duen lema bat: bakardadea, antsietatea, errua, beldurra, menpekotasuna, oroitzapen zailak, eta abar. Joseanen hitzetan “Botila hutsak arazoa edukian ez dagoela adierazten du, pertsona betetzen saiatzen den horretan baizik. Botila huts bat alkoholak inoiz bete ezin izan zuen hutsuneaz beteta dago. Irakurketa baikorra ere izan dezake: apurtzen ari den ziklo bat, hasiera berri bat, botila hutsak jada ez du agintzen, beste gauza batzuez betetzen hasten den bizitza”.

Larunbat honetan herritarrei irekitako topaketa



AERGIk urteko ekitaldirik garrantzitsuena ospatuko du datorren larunbatean, hilak 29, Donostiako Olarain Ikastetxe Nagusira hurbildu nahi duten guztientzat. Jardunaldia arratsaldeko 16:20etan hasiko da eta Pili Leal Espainiako Alkoholiko, Errehabilitazio Adiktu eta Senideen Konfederazioko (CAARFE) presidenteak emango dio hasiera topaketari. Ondoren, Josean Fernandez AERGIko presidentearen eta Aloña Velasco kazetariaren arteko buruz burukoa izango da ikusgai. AERGIko abesbatzak errepertorio oso berezia interpretatuko du. Ekitaldia osatzeko, hitzaldiak emango dira, eta elkarteko erabiltzaileei eta kolaboratzaileei omenaldiak eta aintzatespenak egingo zaizkie. Topaketara doan joateko, aergi.es webgunean sartu eta gonbidapena deskargatu besterik ez da egin behar.

AERGI TOPAKETA

Eguna: Azaroak 29, larunbata

Ordua: 16:20ean.

Tokia: Olarain Ikastetxe Nagusia, Ondarreta pasealekua 24 (Donostia).

Prentsa kontaktua

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 609491422 telefonora (Martin).